



SARE SOZIALEN ERABILERAREN ARRISKUAK

SARE SOZIALEN ERABILERAREN ARRISKUAK

Gaur egun Sare Sozialak eta Informazio-Komunikazio Teknologia (TIK-a) gizartearen zati garrantzitsu bat dira. Eduki digitalek berebiziko pisua hartu duten heinean teknologia berri hauen erabilera egoki bat lortzea ezinbestekoa da beti ere, sarean segurtasun maila handiena eskaintzen duten erreminta edo zigiluak zeintzuk diren argi edukiz.

Mundu digital osasuntsu bat sortzea ezinbestekoa da eta horretarako teknologia berriek eta sare sozialek ekar ditzaketen arazoak ezagutu behar dira.

Aisiaz gozatu eta komunikatzeko modua asko aldatu da azken urteotan, izan ere, gazte belaunaldi berriek teknologia berri hauen jaiotze eta garapenarekin batera hazi dira eta pantailaren bidez ia edozer lortzeko aukera dute: erosketak egitetik ligatu edo ikasketak burutzerara.

2.0 kontzeptua pertsonengan ere aplikagarria da: batzuen ustez "homo connectus"-aren aroan gaude sortzen, konpartitzen eta aisialdi digitala kontsumitzen etengabeko kontaktuan bizi garelako.

TIC delakoak esperientzia eta ezaguera iturri aberatsak dira eta alde onuragarri ugari dauzkate baina hauen eguneroko gehiegizko erabilera batek, erabilera desegoki baten arriskuak esponentzialki handitzea eragiten du. TIK-ek gure erlazio sozialetan, argitaratzen dugun informazioaren erabilerak, jazarpenak, pribatutasun faltak, etabar-ek izan dezaketen eragina planteatzea ezinbestekoa da.

Sinestezina badirudi ere, sare sozialak Internet baino lehenago existitzen dira. Sare sozial bat interesak, zaletasunak, kezak, etabar konpartitzen diren leku bat da, non hartan parte hartzen duten pertsonak elkar-erlazionaturik dauden. Hala ere, Internetek eskaintzen duen plus edo eduki erantsi nagusia mundu guztian zehar pertsonak konektatzeko ahalmena da.

Bereziki, sare sozial ezagunenak helburutzat jendea ezagutzea edota informaturik egotea ahalbidetzen dutenak dira eta inongo duda barik hauen artean ezagunena FACEBOOK da. Sare sozial honek 550 milioi erabiltzaile ditu, izan ere, erabiltzaile kopuru handiena duena da. Bigarren postuan, YOUTUBE aipatu dezakegu.

Interneten burutzen diren jarduera nagusiak honako hauek: bilaketak, bideo edo argazkiak ikusi, bat-bateko mezu igorpena, erosketak, egunkari edo aldizkari digitalen jarraipena, prezioak konparatzea, filmak edo musika deskargatzea, foroetan bilaketak, irratia entzutea, blog-ak irakurtzea, foroetan idaztea, argazkiak igotzea, etabar. Edozertarako!

Peoplesound-ek aurkeztututako txosten baten arabera espainiarrak sare sozialetan parte-hartze aktiboena duten europar herritarren artean daude. Espainiarren %63 mota honetako plataforma bi edo gehiagotan erregistratuta dago. Honek, gure komunikazio-ohitura eta bizimoduan eragin nabarmena du.



Eguneroko bizitzan arreta jartzen badugu, ikusiko dugu:

1. Gero eta aisialdi-denbora gehiago inbertitzen da sarera konektatuta egoten (aisialdi birtuala)
2. Erabiltzaileen parte handi bat bakarrik konektatzen da, inguruan inor izan Gabe. Adingabeen kasuan, honakoa kontutan izan beharreko arrisku bat da izan ere, ez bait dakigu ze motatako edukietara sartzen diren.
3. Logelan edo bulegoan dauden ordenagailuen bidez konektatzen gara eta honek norbanako erabilpena dakar. Ordenagailua gutxitan dago egongelan kokatuta, honek talde erabilera indartzera eta sare sozialak familian goatzera gonbidatu beharko luke.

Nahiz eta teknologia berriak ikarragarritzko aukera eta abantaila iturriak izan, beti egongo da norbait, hauek, delitu jarduerak edota iruzur izaerako aktibitateak gauzatzeko erabiltzen dituen.

Internetek eduki desegokiz betetako edota legalitatearen muga dauden webguneak adingabe eta gazteen eskura jartzen ditu.

Aurkitu ditzakegun arazo nagusiak honako hauek:

a. Gehiegizko erabilera (menpekotasuna)

Menpekotasun edo gehiegizko erabilerak konektatuta egoteko beharrezana edota kasu larrietan abstinentzia-sindromea dakar. Honek "off line" jarduera sozialen murrizketa dakar adibidez, lagunekin gehiago egoteari edo kalera maizago irtetzeari uko eginez.

b. Eduki desegokietara sarrera

Sarean mota anitzeko edukiak aurki ditzakegu formatu anitzetan –argazkiak, bideoak-

Gazteentzako arriskutsuak izan daitezkeen edukiak:

- Sexu izaera duen eduki desegokia
- Indarkeria, arrazakeria edota eduki sexistak
- Anorexia, bulimia edo arrazoi estetikoak
- Sektak edo terrorismoa
- Eduki faltsu, zehaztugabe edo zalantzarria



Haurren pornografia, terrorismo, arrazakeria edo xenofobiaren gorespina, droga trafikoa inguruko webguneak, etabar bezalako edukiak legez kanpokoak dira. Sarritan, webgune hauetarako sarrera ustekabeen beste webgune edo lotura batzuen bitartez ematen da: umeentzako filme bat deskargatu duzula uste duzu baina benetan haurren pornografi edukiko filme bat da.

Beste eduki batzuk legez kanpokoak ez izan arren gazteengan kalteak sortaraz ditzakete.

c. Ziber jazarpena

Identitate faltsuak hartzea baimentzerakoan sare sozialek nolabaiteko anonimata eskaintzen digute. Horregatik, nerabeen artean jazarpen kasuak asko hazi dira.

d. Sexu jazarpena (Grooming)

Honako hau batez ere pedofiliak burutzen dute euren biktimekin harremanetan jartzen saiatzeko. Ikusten dugunez, honakoa ez da delitu berri bat izan ere, pedofilia sare sozialen etorreraren aurretik existitzen da baina teknologien aurrerakuntza aprobetxatzen dute delitua egiteko.

Sare sozialaren bitartez nagusiak adingabe edo gaztea iruzurtzen du beste gazte bat dela sinistaraziz eta bere konfiantza irabaziz eduki sexualeko argazki edo bideoak lortzeko asmoz. Eduki sexualeko artxibo hauek lortu eta gero, irudi horiek zabaltzearekin gaztea mehatxatzen du harremana luzatuz eta horrela material gehiago lortuz.

e. Arrisku ekonomikoa. Iruzurra

Noizbait denok entzun dugu zerbait “phising”-ari buruz, horrela, Imak faltsu bat lortzearekin loturiko iruzur mota bat da.

Iruzur xumetik harago, ohikoa da gazteak apustu sare edo zori jokoetan jauzteko kako moduan erabiltzen den dohako saldo baten bidez hauek liluratuz eta jokoan murgiltzea ondorioztatuz.

